

Tradizioak

Egunotan iruindarrok ospatzen ari gara asmatu berri dugun tradizio zahar bat, Iruñeko hiru burgu batu zireneko dekretua aitazakiatzat hartuta gurasoak erraldoi eta kilikien atzean ibiltzearena. Hortaz gain, badira bestelako ekitaldi batzuk, baina ez nuke jakinen esaten zeintzuk.



JIRA
Angel Erro

Tradizio ez zaharrari udal berriak ohitura berri bat gehitu nahi izan dio. Eliz kutsua kentzeko edo. Desfile bat. Ia-ia herritarra. Zinegotziak kaleko jantzian joan ahal izanen direlako. Oposizioa, ETA aldian behin -misteriopean datza noitzasuna- gaitzesteko tradizioa abian jarrita legealdia lehene neurria batzarrera eraman ondoren, kexu agertu da alkatea tradizioari dion erdeinu erabatekoaz, antza, ez baititu zinegotziak frakez (gizonak) edo Erronkariko jantzi -barka erredundantzia- tradizionalez (emakumezkoak) bezituzera behartu. Jakitekoa da fraka asmatu aurretik ere Iruñeko zinegotziak bazirela.

Emandako tradizioak tradituz eta zaharberri-tuz baino ezin dugu egiaztatu bizirik gaudela, herri eta gizaki moduan. Gaurkoan, esaterako, uko egin diot egunotan alardeaz aritzeko tradizioari.

(Orain oto zait Iruñeko zinegotzi emakumezkoek frakez joatea eskatu beharko luketela, Hondarribiarekin crossover-ean, tradizioari men egiteko).

Bihotza

Gaur 75 urte dituen emakume bati kardiomiostimulatzailer bat josi behar izan zioten 1992an, taupada-markagailu ospetsuaren arbaso-ede, gure bizimodu sedentarioak arrunt bilakatu duen gaitzari aurre egiteko. Sortzez tahitiarra, Bordelen bizi zen garai hartan, eta puntako teknologia medikoa zeramala irten zuen ospitaletik, pila bidezko motor modernoan txertatu izan balioite bezala, bizitza osorako.



BIRA
Garbine Ubeda

Bizitzak, ordea, motz behar zukeen nahita ere, hamarkada eta erdi apika, seme-alaben ibilbidea finkatzen edo bilobak jaiotzen ikusteko lain. Bere zorionerako, aurreikuspen optimistenak ere atzean utzi ditu andreak, baina horra ifrentzua, berrikuntza teknologiko itzaropentsua zenari agortzen ari zaio batera eta dagoeneko ez da fabrikatu ere egiten. Izatez, kardiomiostimulatzailer batek bizi duen pertsona bakarra izan liteke munduan, gainerakoak hilak izaki...

Andrearen arazoak izango du konponbiderik, tramankulu zaharkitua atera eta gaurko taupada-markagailua ezartzea, kasurako, baina zer pentsa eman beharko liguke, garapen teknologikoaren aurrean hondatze programatura kondanatuak etxetresnak bagina bezala senti ez gaitzen. Gauzek, elektronikoen nahiz mekanikoen, telefono, altzari edo hozkailuek, aukeran berderen, betiko irauin dezaten.

22 Iritzia

Gizarteratzea Alemanian

Jon Mirena Landa
Zigor Zuzenbideko irakaslea

Etakide presoen gaik bere horretan dirau espalditik, gizarteratzeak zer esan nahi ote duen eztabaidagai etengabeko bilakatu delarik. Hainbat aldiz aipaturiko Sisifo mitoaren irudia beste behin ere honi, zoritxarrez, primeran dagokio: Sisifok harri handia, itzela, mendi gora eraman behar zuen ahalegin handiz, zigor gisa, tontorreraino heldu eta handik nola erortzen zen besterik ez ikusteko eta horrela, bere lana, bere zigorra, amaigabea, behin betikoa, berriro ere hasten zen, sufrikario zentzugabeko honi kateaturik.

Honelako dinamikan murgildurik, harrapaturik, agian Alemanian 2006 eta 2007 bitartean gertatu zen polemika baten berri ematen ahaleginduko naiz, hura eztabaida arrazionalizatze-lagunak izan daitezkeelakoan. 2007ko urtarrilaren 29an, hain zuzen ere, ospetsu bezain mamitsua den *Der Spiegel* egunkari alemanak, honako izenburu hau erabili zuen terrorista batzuen askapenaz hitz egiteko: *Errukia errukigabeentzat* («Gnade für die Gnadenlosen»). Roten-Armee-Fraktion (RAF) izeneko bi taldekide, Brigitte Mohnhaupt eta Christian Klar, presondegitik ateratzeko zorian zeuden bertan 24 urte luze eman ondoren. Mohnhaupt eta Klar RAF-en bigarren belaunaldikoak ziren, eta buru-belarri parte hartu zuten Alemaniako Udazkena (Deutscher Herbst) izeneko aldi ilunetan, eta, indarkeria bolada gogor baten ondorioz, hainbat hilketa eragin zituzten. RAF-ek bere ibilbidean 34 lagun hil zituen, eta 30 terrorista baino gehiago kondanatuak izan ziren egindakoagatik, horien artean 19 -Mohnhaupt eta Klar barne- behin betiko zigorrera.

Alemanian Zigor Kodearen arabera (§ 57a StGB), behin betiko zigorra ezartzea badago, baina ez edozein modutan. Hango Auzitegi Konstituzionalak beharturik, 1977ko ekainaren 21eko epai baten bitartez, horrelako amaigabeko presoaldietan ere baldintzapean aske ateratzeko igurikimena egon beharra dago. Igurikapena edo eskubidea: alegia, preso horiek ere epe jakin baten ostean -legez, arau orokor gisa 15 urte- kalera baldintzapean aske ateratzeko modua bermaturik

eduki behar dute bai eta hori gauzatzeko prozedura jakin bat horien eskura eduki ere.

Baina ez epea bakarrik: Alemanian 15 urte bete ondoren, presoak berak ere kalera irtete aurreratua baimendu behar du eta, garrantzitsuena, «arriskutsutasun kriminalaren pronostikoa» ere egiten da, etorkizuneko delituri egin gabe bizi izateko moduan ote dagoen presoak baieztatzea. Kasurik gogorrenetan gainera, Mohnhaupt eta Klar bezalakoetan, epaia ematen duen auzitegiak zera aldarrikatu dezake: beraien delituak «bere-ziki larriak direla erрудuntasunaren ikuspegitik». Hortaz, bete beharreko gutxieneko epea luza daiteke: esaterako, Mohnhaupt-en kasuan 24 urtera arte eta Klar-en kasuan 26 urtera arte, gertatu zen moduan.

2007an, orduan, nondik etorri zen aipatu polemika? 24 urte kartzelan eman ondoren Mohnhaupt-ek baldintzapeko askatasuna lortzeko aurrerapausamendu guztiak beteta zituen, baina biktimen senitarteko batzuek horren kontra jotzen zuten, nola kalera joan zitekeen ulertu ezin.

Eta ulergarria da, guztiz, norbaiten senitartekoren bat hil duten pertsonak kalera atera behar direnean hala-ko sentimenduak edo bestelakoak

edukitzea. Nor ausartuko da era zilegizkoan holako sentimenduei buruz epaitzen? Beste gauza bat da, ordea, justizia administrazioak nola jardun behar duen eta Alemanian nola jardun zuen kasu horretan.

Mohnhaupt kalera atera zen polemika gorabehera. Ez ordea Klar, azken honen kasuan bere gutxieneko epea beranduago betetzen zelako. Oso eztabaida sutsua piztu arren, horrek dakarren presioarekin, epaileek beste preso arrunten kasuetan bezala jardun zuten, eta legeko betekizunak bakarrik kontuan eduki zituzten horiek aldrebestu edota gogorragoak suerta daitezen behartu barik. Esaterako, pronostikoa, delituak etorkizuneko egiteko, presondegi alorretatik kanpoko adituek egin zuten, eta biek kasuetan positiboak suertatu ziren, alegia, baldintzapeko askatasuna ematekoak duda barik, inkluso Fiskaltzaren aldeko txostenarekin. Klar-en kasuan, gainera, berak bere ideologia eskuin-muturrekoari argi eta garbi eusten zion arren, Alemaniako Udazkenaren tankerakoan hain zuzen ere, horrek ez zion eragotzi aldeko pronostikoa edukitzea.

Izan ere, polemika eta ikuspegi biktimologikoa present eduki arren, legegari (abokatu, fiskal, epaile...) germaniarrek garbi baitute, behin betiko presoaldien kasuan ere, damutzea, edo biktimari barkamena eskatzea, edo egindako uestezko beste delituen inguruko informazioa ematea (autoritateekin elkarlanean) ezin direla inolaz ere galdatu, exijitu, pertsona baten aldeko pronostikoa egiteko are gutxiago baldintzapeko askatasuna eragotzeko. Azkeneko alderdi hauek guztiak epaiketa aurrera eramaten denean errugabetasunaren ueste dela-eta, ezin dira behartu, inork ez baitauka bere burua -ezta besteena-salatu beharrik: are, kontrakoak, gezurra esateko eskubidea ere badago, Fiskaltzak edo bestelako aldeek kontrako lana egingo dutelakoan. Beraz, epaiketa-aldian ezin bada, ezta zigorrera betetzen ari denean ere. Pronostikoa arriskutsutasun kriminalaren inguruko behar du izan, eta ez «arriskutsutasun ideologikoaren» inguruan.

Kett-Straub irakasle alemanak, egun behin betiko zigorretan Alemaniako espezialistatik handienetakoak, RAF kasuei buruz idatzitako artikulu baten izenburuak esaten duen moduan: «Terroristek ere badute askatasunerako eskubidea».

Ikuspegi biktimologikoa present eduki arren, legegari germaniarrek garbi dute, behin betiko presoaldien kasuan ere damutzea, edo biktimari barkamena eskatzea, edo egindako uestezko beste delituen inguruko informazioa ematea (autoritateekin elkarlanean) ezin direla inolaz ere exijitu, pertsona baten aldeko pronostikoa egiteko, are gutxiago baldintzapeko askatasuna eragotzeko